

13. Laborategia

Herriak.txt fitxategian herri zerrenda bat daukagu, fitxategiaren formatua honakoa delarik:

"Arantza",240
"Elizondo",1420
"Iruña",250000
...

non ezkerraldeko izena herriaren izena den eta eskubiko zenbakia herriaren biztanle kopurua den. Ondokoa egin behar da :

1. **GUZTIAK ZUZENEAN PANTAILARATU:** herri guztiak ("izena - biztanleak") PictureBox-ean pantailaratu beharko da. Ez da bektorerik erabiliko eta irakurri bezain laster informazioa pantailaratuko da.
2. **GUZTIAK BEKTOREAN IRAKURRI:** fitxategi osoa bektore batean irakurriko da. Ez da ezer pantailaratuko.
3. **BEKTOREA PANTAILARATU:** bektorean dagoen informazio guztia pantailaratuko da 2. ariketako formatua erabiliz.
4. **HANDIENAK PANTAILARATU:** 10000 biztanletik gorako herriak idatziko dira. Bektorea erabiliko da.
5. **HANDIENAK GORDE:** botoia zapaldutakoan "Handienak.txt" fitxategian 10000 biztanletik gorako herriak gordeko dira "Herriak.txt" fitxategiaren formatu bera erabiliz.

